



## 146. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2020ko ekainaren 25ean, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak: Alex Oliden Antia, jna.  
M. Arritokieta Iribar Egaña, and.  
Maider Alberdi Yeregui, and.  
Asier Arakistain Alberdi, jna.  
Marina Bidasoro Arocena, and.  
Jose María Azkue Castillo, jna.  
Maddi Aldalur Osa, and.  
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.  
Oier Korta Esnal, jna.  
Gotzon Embil Unanue, jna.  
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.  
Cristina Vicente Iciar, and.  
Iker Mardaras Arrieta, jna.  
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.  
Arritokieta Marañón Basarte, and

Ez bertaratuak: M. Cruz Alvarez Aparicio and

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre

### 1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (145. zbkia – 2020.06.15)

Onartutzat ematen da 145. Ezohiko osoko bilkurako akta.



**2.- OGASUNA.-**

**2.1.- IRIZPENAK.-**

**2.1.1.- UDALAREN 12. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**“Konpromiso kreditu bidezko kreditu aldaketaren 2020-KALD-000013 zenbakidun espedienteak onartzeko irizpena”.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu konpromiso modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak 22. artikuluan.

Gaia aztertu ondoren,

**IRIZPENA**

**Lehenengoa.-** 2020ko ekainaren 18an ospatzen den Ogasun Batzorde honek onartzen du/ez du onartzen Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu konpromiso modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

.- 2021 urterako konpromiso-kredituak sortzea:

5 0100.622.334.00.01 (San Jose konbentua, obra zuzendaritza) : 201.721,95€.

Finantzaketa, aurrezki garbia.

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak:

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen/ez da onartzen da.

Zumaian, 2020ko ekainaren 17an

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

**Aldeko botoak: 10 boto (9 EH BILDU, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 6 boto (EAJ-PNV)**



da.-

**2.1.2.- UDALAREN 13. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**UDALAREN 13.KREDITU ALDAKETA-OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA**

Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2020-KALD-000014-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaiion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,

**IRIZPENA**

Lehenengoa.- 2020ko ekainaren 18an ospatzen den ogasun batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUA			
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK			
3	INTERESAK			
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK	27.000,00	18.759,69	8.240,31
7	KAPITALEZKO TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZ AKTIBOAK			
9	FINANTZ PASIBOAK			
<b>GUZTIRA</b>		<b>27.000,00</b>	<b>18.759,69</b>	<b>8.240,31</b>

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
-----------	-------	------------------	------------	--------------------



1	PERTSONAL GASTUA			
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK			
3	INTERESAK			
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK	533.210,00	18.759,69	551.969,69
7	KAPITALEZKO TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZ AKTIBOAK			
9	FINANTZ PASIBOAK			
<b>GUZTIRA</b>		<b>533.210,00</b>	<b>18.759,69</b>	<b>551.969,69</b>

**Bigarrena.-** Gaia aztertu ondoren, bozketa egiten da:

Aldeko botoak: 4 (3 EH-Bildu, 1 ES-SV)

Aurkako botoak: 2 (EAJ-PNV)

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

**Aldeko botoak: 10 boto (9 EH BILDU, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 6 boto (EAJ-PNV)**

**ERABAKIA 1.-** Udalaren 13. kreditu aldaketa onartzen da.-

**2.1.3.- 2020KO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**2020KO EKAINAREN 18KO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2020. URTERAKO BEHIN BETIKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO.**

**AURREKARIAK**

Covid19ak sortutako krisiaren ondorioz kiroldegia denboraldi batez itxita egon da eta berriro ere zerbitzuak zabaldu badira ere, ez dira berdinak, horregatik guztiagatik eta Kirol Patronatuko gerentearen txostena kontuan hartuta.



Irizpen honi 2020ko behin betiko Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamena eranstean zaio.(1.Eranskina)

### **IRIZPENA**

Ondorioz, 2020ko ekainaren 18an, Ogasun Batzordeak aldeko **irizpena jaso du** hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 4 (3 EH-Bildu, 1 ES-SV)

Aurkako botoak: 2 (EAJ-PNV)

Abstentzioa:

Honako PROPOSAMEN hau udalbatzako Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Hasierako onarpena ematea 2020.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberaren arabera, udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu eta GAOn argitaratu hogeita hamar egun balioduneko epean zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkeztzen ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2020ko ekainaren 18an

Batzordeburua

**Aldeko botoak: 10 boto (9 EH BILDU, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 6 boto (EAJ-PNV)**

**ERABAKIA:** 1.- Hasierako onarpena ematea 2020.urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua araberaren arabera, udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu eta GAOn argitaratu hogeita hamar egun balioduneko epean zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia



**Zumaia Udala**

2020IAKU0007-A20/4304

hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

### **3.- HIRIGINTZA.**

#### **3.1.- PROPOSAMENA.-**

##### **3.1.1.- BELAUNALDI BERRIKO TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUAK ATZITZEKO SAREAK FORMATU UNIBERTSALEAN HEDATZEKO UDAL ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-**

##### **2020KO EKAINAREN 25-EKO OSOKO BILKURAK BELAUNALDI BERRIKO TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUAK ATZITZEKO SAREAK FORMATU UNIBERTSALEAN HEDATZEKO UDAL ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO PROPOSAMENA.**

#### **AURREKARIAK**

1.- Ordenantza honen xedea Europako eta estatuko arau-esparru berria udal-mailako eremura egokitzea da, modu argi eta egonkor batean, helburu hauek betetzeko:

- Zumaia herritarrei kalitatezko banda zabaleko sarea atzitzeko aukera eskaintzea, prezio lehiakorretan.
- Azpiegiturak hedatzeko prozesua ordenatzea, ikusizko inpaktua eta tokiko paisaian izan dezaketen eragina ahalik eta txikiena izateko moduan.
- Europako Zuzentarauak, estatu mailako aplikatu beharreko ordenamendu juridikoa eta Autonomia Erkidegoetakoa betetzea eta, aldi berean, udalerriri dagozkion eskumenez baliatzea, batez ere hirigintzarekin eta ikusizko inpaktuarekin edo gardentasuna eta diskriminazio eza bermatzearekin zerikusia duten kontuei dagokienez.
- Belaunaldi Berriko Telekomunikazio Zerbitzuak Atzitzeko Sareak (BBTZAS ) hedatzeko prozesua erraztea, ahalik eta abiadura eta efizientzia-maila handienarekin egin dadin. Edozein motako inbertsioen efizientzia piztea eta maximizatzea eta, aldi berean, jasagarritasuna ziurtatzea ematen zaien erabileraren arabera, administrazio publikoarentzat nahiz herritarrentzat izango duen kostua murriztuz.
- Beharrezkoak diren konektatutako azpiegiturak (gailuak, sentsoreak, eragingailuak, etab.) hedatzeko prozesua erraztea, zerbitzu publiko adimendun berriak eta hobeak garatzeko (argiztapena, hondakinen kudeaketa, segurtasuna, mugikortasuna, etab.), hala nola «SMART» izenarekin ezagutzen direnak.
- Kalitate eta ahalmen goreneko telekomunikazio-zerbitzuen eskaintza merkea eta askotarikoa herritar guztien eskura jartzea, bizi diren tokian bizi direla, sektore pribatuan garatzen diren negozio-ereduak baldintzatu gabe, aniztasuna bermatuz eta aniztasun horri kalte egiten dieten nagusitasun edo espekulazio egoerak saihestuz.
- Aldez aurretik irizpide orokor batzuk ezartzea, aurreko puntuak ahalik eta bizkorren aplikatu daitezkeen, hedapena gauzatu behar den unean inprobisatu behar izan gabe.



**Zumaia Udala**

2020IAKU0007-A20/4304

**2.-** Ikusirik 2020ko martxoaren 17, Ekainak 1 eta Ekainak 15eko Lurralde Antolamenduko batzordeetan BELAUNALDI BERRIKO TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUAK ATZITZEKO SAREAK FORMATU UNIBERTSALEAN HEDATZEKO UDAL ORDENANTZA buruz informatu zela.

### **PROPOSAMENA**

Ondorioz, 2020ko Ekainaren 25eko Osoko Bilkurak

Alde:  
Kontra:  
Abstentzioa:

**ALDEKO** PROPOSAMENA eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.d) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

**1.-** BELAUNALDI BERRIKO TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUAK ATZITZEKO SAREAK FORMATU UNIBERTSALEAN HEDATZEKO UDAL ORDENANTZA-ri hasierako onarpena ematea.

**2.-**Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua arabera.

Zumaian, 2020ko Ekainaren 25ean

Iñaki Ostolaza Esnal

Alkatea

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA: 1.-** Proposamena tratatzea erabakitzen da.-

**Aldeko botoak: 9 boto (EH BILDU)**

**Kontrako botoak: 0**



**Abstentzioak: 7 boto (EAJ-PNV, 1 ES-SV)**

**ERABAKIA:** 1.- Belaunaldi berriko telekomunikazio zerbitzuak atzitzeko sareak formatu unibertsalean hedatzeko udal ordenantza-ri hasierako onarpena ematea.

2.-Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua araberak.

**3.2.- IRIZPENA.-**

**3.2.1.- SAN PEDRO KALEA, 12-14- FATXADA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIAREN ICIO ATALEKO %95EKO HOBARIA EMATEA, BIDEZKO BADA.**

**2020KO ABENDUAREN 15KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, SAN PEDRO 12-14KO FATXADAKO OBRA BAIMENEAN ICIO ATALEKO %95EKO HOBARIA APLIKATZEKO**

**AURREKARIAK**

1.- Ikusirik 2019ko Ordenantza Fiskaletan, Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio, eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauak, bere 5.artikuluan aipatzen duen bezala: ordenantza fiskalek zerga kuotaren %95era arteko hobaria arautu ahal izango dute interes berezikoak edo udal erabilerakoak deklaraturako eraikuntzen, instalazioen edo obren alde, horretarako arrazoi sozialak, kulturalak, historiko-artistikoak edo enplegua bultzatzeko arrazoiak daudenean. Zerga honetan %95era arteko hobaria arautu ahal izango du osoko bilkurak onartzen dituen obretarako.

Horren ondorioz, 2019ko urriaren 10eko Osoko Bilkurak onartu zuen Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio, eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauak, bere 5.artikuluan arautzen dituen onuren izendapena. (Eranskina).

Hori dela eta, 2019an zehar eskatu diren obra baimenetan eranskinean azaltzen diren ezaugarriekin bat datozenak, eta Udaleko Hirigintza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak Saileko arduradunaren aldeko txostenarekin.

2.- Ikusirik 2020ko Otsailaren 20an San Pedro 12-14ko Fatxadaren obra baimena eskatu dela.

3.- Ikusirik 2020ko Abenduaren 15eko Lurralde antolamenduko batzordean gaia informatu zela.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2020ko ekainaren 15eko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)

Marina Bidasoro(EHBildu)

Alex Oliden Antia(EHBildu)

Oier Korta Esnal (EAJ)





**Zumaia Udala** Aitziber Odriozola(EAJ)

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

2020IAKU0007-A20/4304

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- HONAKO FATXADETAN EGINDAKO OBRA LANAK INTERES PUBLIKOTZAT JOTZEA ETA ONDORIOZ ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAN %95EKO HOBARIA EMATEA.

San Pedro 12-14

Zumaia, 2020ko Ekainaren 15a.  
LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEBURUA

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** 1.- San Pedro kalea, 12-14ko fatxadan egindako obra lanak interes publikotzat jotzea eta ondorioz eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria ematea onartzen da.

#### **4.- GIZARTE ZERBITZUAK.-**

##### **4.1.- IRIZPENA.-**

**4.1.1.- GARAPENERAKO LANKIDETZA SUSTATZEN DUTEN JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO, OINARRI ARAUTZAILEEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-**

**2020KO MAIATZAREN 19KO GIZARTE ZERBITZU BATZORDEAREN IRIZPENA, GARAPENERAKO LANKIDETZA SUSTATZEN DUTEN JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK PROPOSATZEN DIRA.**

#### **AURREKARIAK**

1.- 2020ko maiatzaren 19ko Gizarte Zerbitzu batzordean, garapenerako lankidetzaren sustatzen duten jardueretarako diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzeko proposamena aurkeztu zen.

2.- 2020ko maiatzaren 19ko Gizarte Zerbitzu Batzordean, aurkeztutako proposamena eztabaidatu zen.

3.- Honekin batera doa, garapenerako lankidetzaren sustatzen duten jardueretarako diru laguntzak emateko, oinarri arautzaileak onartzeko proposamena.

#### **IRIZPENA**



Ondorioz, 2020ko maiatzaren 19ko Gizarte Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: EAJ (2), Bildu (3)

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo soilak beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Hasierako onarpena ematea garapenerako lankidetzak sustatzen duten jardueretarako dirulaguntzak emateko, oinarri arautzaileei, eta uztailearen 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua arabera, udaleko iragarki taulan eta GAO on argitaratu, hogeitamar egunetan zehar.

2.- Jedaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Koporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz, behin betiko erabakia hartuko du eta erreklamaziorik aurkezten ez badira, behin behinekoa zenerabakia behin betikoa hartutzat ulertuko da.

3.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEBURUA  
Jose Mari Azkue Castillo

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** 1.- Hasierako onarpena ematea garapenerako lankidetzak sustatzen duten jardueretarako dirulaguntzak emateko, oinarri arautzaileei, eta uztailearen 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua arabera, udaleko iragarki taulan eta GAO on argitaratu, hogeitamar egunetan zehar.

2.- Jedaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Koporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz, behin betiko erabakia hartuko du eta erreklamaziorik aurkezten ez badira, behin behinekoa zenerabakia behin betikoa hartutzat ulertuko da.

3.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

## **5.- PROPOSAMENAK-**



### **PROPOSAMENA**

Ikusita Eusko Legebiltzarrak 2018ko ekainaren 28an onartu zuela Euskal Autonomia Erkidegoko Itsas Garraioari buruzko 2/2018 Legea (uztailaren 5eko EHAA, 129. zk.), interes orokorrekotzat kalifikatuta ez dauden portuen gainean Autonomia Erkidegoak dituen eskumenak baliatuz ( EAEE, 10.32 art.).

Lege horren hirugarren kapituluak Euskadiko Kirol Portua, S.A. merkataritza-sozietatearen forma juridikoa Euskadiko Kirol Portuak izeneko zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzen du, eta, horrekin batera, aisialdiko erabilera nautikoekin lotutako Euskadiko portu-azpiegitura guztien kudeaketa bateratzen du. Kudeaketa-eredua aldatzearen ondorioz, legeak Zumaiako Kirol Portua SA sozietate publikoa desegitea aurreikusten du, eta haren eginkizunak erakunde berriak beteko ditu.

Maiatzaren 12ko 59/2020 Dekretuaren bidez, zeinaren bidez Euskadiko Kirol Portuak erakundeari esleitzen baitzaizkio bere eginkizunak betetzeko behar dituen baliabideak, Euskadiko Kirol Portuak erakundeari esleitzen zaio Zumaiako portuko kirol-zerbitzu publikoaren kudeaketa, besteak beste.

Dekretu horrek aurreikusten duenez, Zumaiako Kirol Portua SA azkentzen denean, "Euskadiko Kirol Portuak." Subrogatu egingo da Zumaiako Kirol Portua SAK azkentzeko unean dituen kontratu, hitzarmen eta gainerako negozio juridikoetan jatorria duten harreman juridiko subjektibo, eskubide eta betebeharrak guztietan.

Ikusita 5. artikulua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren ondare-araubidea ezartzen duela, honela dio:

1. – Dekretu honen 1. artikuluan emandako esleipenak berekin dakar Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titulartasuneko ondasun eta eskubideak atxikitzea, baldin eta artikulua horretan aipatzen diren kirol-portuetan kirol-portuetako zerbitzu publikoari atxikita badaude.

2. – 1. artikuluan emandako eskumenaren arabera, "Euskadiko Kirol Portuak" erakundearen esku jartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasunpekoak ez diren ondasun eta eskubideak, aipatutako erakundeak aipatzen dituen portuetan kirol-portuetako zerbitzu publikoari atxikitakoak.

Artikulua. Zumaiako Kirol Portua SAren kasuan, zerbitzuari atxikitako ondasun eta eskubideak "Euskadiko Kirol Portuak" erakundearen eskura jarri ahal izango dira azkentzen diren unean.

Zumaiako Kirol Portua, S.A.k 10 milioi pezetako (60,101.16 euro) kapital sozialarekin eratu zen, guztiak harpidetu eta ordaindutako 10 mila akziotan banatuta.

Zumaiako Udalak akzioen% 49 ditu.

Ikusirik Zumaiako Kirol Portua, S.A.aren Estatutuek sozietatea desegiteari eta likidatzeari dagokienez sozietate anonimoen legera igortzen dutela, gaur egun indargabetua eta indarreko Kapital Sozietateen Legeak ordeztua (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina).



**Zumaia Udala**

2020IAKU0007-A20/4304

Horregatik guztiagatik, eta Kapital Sozietateen Legearen 168. artikularen arabera, Zumaia Udaleko osoko bilkurak, Zumaia Kirol Portua, S.A.ren bazkide akziodun den aldetik, honako hau

### **ERABAKI DU**

Lehenengoa.- Zumaia Kirol Portua, S.A.ren administratzaileei Ezohiko Batzar Orokorrerako deia egitea, gai-zerrendako puntu gisa gai hau sartzeko:

Akziodunei Zumaia Kirol Portua, S.A. desegiteko, likidatzeko eta azkentzeko prozesuaren berri ematea.

Bigarrena.- Udaleko alkateak erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren izapideak egitea.

ZUMAIA, 2020ko ekainaren 19an.-  
ALKATEAK.-

Proposamena tratatzea bozkatzera pasako gara,

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** Proposamena tratatzea erabakitzen da,

Orain proposamen bera bozkatuko dugu:

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** 1.- Zumaia Kirol Portua, S.A.ren administratzaileei Ezohiko Batzar Orokorrerako deia egitea, gai-zerrendako puntu gisa gai hau sartzeko:

Akziodunei Zumaia Kirol Portua, S.A. desegiteko, likidatzeko eta azkentzeko prozesuaren berri ematea.



2.- Udaleko alkateak erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren izapideak egitea.

Gero dator, mozio bat ekainaren 28ko egunaren ondorioz,

**5.2.- EH-Bidu; EAJ-PNV; ETA ES-SV UDAL TALDEEN IZENEAN AURKEZTURIKOA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EKANIAK 28 LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA.-**

Azalduko digu Mainerrek zertan datzan:

MAIDER ALBERDI: Pixkat azalduko ditut adierazpen honetan azaltzen diren puntuak eta onartuko ditugun puntuak, batzordean tratatu zen pixkat proposamena eta hurrengo egunetan ibili gara adierazpena adosten, orduan, hiruron artean adostutako adierazpena da LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA ri begirakoa lñakik esan duen bezala, hasieran egunaren kokapena bera eta gero gaur egungo errealitatean irakurketa baina garrantzitsuena da Zumaia Udalak egiten dituen adierazpenak, hartzen dituen konpromisoak eta gero egiten dituen eskaera konkretu batzuek, orduan irakurriko ditut zazpi puntuak:

Alde batetik,

1) LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatu eta abian jartzeko konpromisoa hartzen du Zumaia Udalak.

2) LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatze konpromisoa hartzen du, hala nola: administrazio-formularioetan aldaketak egitea edo aldagelak eta komunak egokitzea e.a.

3) Prestakuntza-prozesuak bultzatzeko konpromisoa hartzen du, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako. Eta 4. konpromisua

4) Zeharka, LGTBI kolektiboekin, kolektibo feministekin eta adituekin identifikatutako ekintza guztien diseinu, jarraipen eta ebaluaziorako elkarrizketa lotesle eta iraunkorreko espazioak gaitzeko konpromisoa hartzen du.

Eta bestalde hiru eskaera egiten ditu baita ere,

Alde batetik,

5) LGTBI Euskal Lege Integral bat prestatzeko eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari.

6) LGTBI Euskal Kontseilua sortzeko eskatzen diogu baita Eusko Jaurlaritzari, gizarte-eragile publikoen eta pribatuen parte-hartze aktiborako espazio gisa.

Eta azken puntua,

7) LGTBI kolektiboko pertsoneri lotzen zaizkien estereotipoekin amaitzeko eskatzen diegu erakunde publiko eta pribatuei.

Eta horrekin batera, Herritarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak egun horretan deitutako ekintzetan parte har dezaten.

Proposamena eztabaidatzea bozkatzeko da

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**



**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** Proposamena tratatzea erabakitzen da,

Eta orain ekarritako proposamenaren aldeko bozkak? : 16 bozka , (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** 1.- EH-Bidu; EAJ-PNV; ETA ES-SV Udal taldeen izenean aurkezturiko adierazpen instituzionala, ekainak 28 LGTBI harrotasunaren nazioarteko egunari dagokion proposamena onartzen da.-

IÑAKI OSTOLAZA : Hitzarmena UKUE eta Zumaia udalaren artekoa diru laguntza zuzenen oinarriak kudeatzeko Mankomunitatetik proposamena ekartzen dut bozkatzera

#### **HITZARMENA, BILDU DIRA**

Batetik, Iñaki Ostolaza Esnal (NAN zenbakia 72443977-A), Zumaia alkatea, eta, bestetik, Lourdes Salsamendi Goñi andrea (NAN zenbakia 15998426-V, Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria.

#### **HONELA DIHARDUTE**

Iñaki Ostolaza Esnal jaunak Zumaia Udalaren lege ordezkaria den aldetik

Lourdes Salsamendi Goñi andrea Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakari denez, Udal Elkartearen izenean

#### **ADIERAZTEN DUTE**

**Lehena.-** Zumaia, Covid-19k eragindako osasun-krisaren ondorioz kaltetuak suertatu diren autonomoei edo bere kontura lan egiten duten langileei eta mikroenpreseei zuzendutako dirulaguntzen oinarrien deialdia egin du.

**Bigarrena.-** Urola Kostako Udal Elkarte Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia udalek eratutako toki erakundea da, 7/1985 Legearen, apirilaren 2koaren, Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituenaren 44. artikulua ezarritakoaren haritik.



**Hirugarrena.-** Urola Kostako Udal Elkarteak nortasun eta gaitasun juridiko osoa du bere xede diren helburuak betetzeko, bere Estatutuek arautzen dutenaren arabera.

**Laugarrena.-** Estatutuen bosgarren artikulua xedatzen duenez, Udal Elkartearen xedeetako bat da, betiere udal eskumenen esparruan, enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak eskaintzea.

Zumaia Udalaren nahia da, Covid-19aren eraginez kaltetuak izan diren autonomoei edo bere kontura lan egiten duten langileei eta mikroenpreseei laguntzea. Eta Zumaia Udal Urola Kostako Udal Elkarte kide izanik, laguntza horiek Udal Elkartearen bidez kudeatzeko, lankidetzaren hitzarmen bat adostea bi aldeek artean, honako baldintzekin:

### **BALDINTZAK**

#### **Lehena.- Xedea:**

Zumaia Udalak onartu dituen diru-laguntzen helburua da enpresentzat eta mikroenpresentzat, jarduerak etenda badituzte martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan –Covid-19ak sortutako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeari buruzkoan– aurreikusitakoaren arabera, edo jarduerari eutsi badiote, haien fakturazioa aurreko urtekoarekin konparatuz edo 2019an fakturatutako batez besteen aldean % 40a murriztu bada, hauei laguntzeko dirulaguntzen deialdia egitea.

Horretarako, hitzarmen honen xedea da, Zumaia Udalaren eta Urola Kostako Udal Elkartearen arteko lankidetzaren nondik norakoak arautzea, Udal Elkarteak, erakunde laguntzaile gisa, aipatutako dirulaguntzen deialdia kudeatu dezan.

#### **Bigarrena.- Baliabide ekonomikoak:**

Aipatutako dirulaguntzen deialdian aurreikusitako baliabide ekonomikoak Zumaia Udalaren 2020ko aurrekontuan 1.000.421.431.0010 2020 "DIRULAGUNTZAK MERKATARI, OSTALAR. UKUE COVID19" partidan zehaztuta daude eta orotara 500.000,00 euro dira.

#### **Hirugarrena.- Zumaia Udalaren eginkizunak:**

Zumaia Udalaren eginkizuna izango da, Covid-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioz kaltetuak suertatu diren autonomoei edo bere kontura lan egiten duten langileei eta mikroenpreseei zuzendutako dirulaguntzen oinarrien onarpena eman eta deialdia egitea, dagokion Aldizkarietan argitarapena egiten, eta komunikabideen bitartez ere iragartzen.

Udal Elkarteak behin eskaera guztiak jaso eta dirulaguntza jaso behar duten onuradunen zerrenda eta zenbatekoa zehaztu ondoren, Zumaia Udalarik zerrenda pasako dio egin behar diren ordainketa bertatik egiteko.

Horrekin batera, dirulaguntza emateko baldintzak ez betetzeagatik dirua bueltatzeko Premiamenduzko betearazpen-bidea hasi beharko balitz, eskaera hori Zumaia Udalak egingo du bere baliabideen bitartez.

#### **Laugarrena.- Erakunde laguntzailearen eginkizunak:**



**Zumaia Udalak**

2020IAKU0007-A20/4304

Erakunde laguntzailearen eginkizuna da eskaerak jasotzea, onuradunen zerrenda udalari pasatzea, dirulaguntzen gastuen zuriketak jasotzea eta diruz lagundutako jarduerak eta helburuak bete direla egiaztatzea, dirulaguntzak arautzen dituen deialdiko oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Zehatzago esateko, aipatutako oinarriek arautzen dutenaren arabera, erakunde laguntzailea da deialdian aurreikusitako dirulaguntzak ebatziko dituen eta ordainketen proposamena egingo duena, horretarako beharrezko diren izapide eta eginbideak bideratuz. Ondorioz, erakunde laguntzaileak eginkizun hauek burutuko ditu:

- eskabideak jaso
- eskabideak aztertu eta errekerimenduak egin.
- dirulaguntzak emateko proposamena egin.
- dirulaguntzak ematea ebatzi, jakinarazi.
- zerrenda Zumaia Udalari pasa ordainketak egiteko
- justifikazioak baloratu, diruz lagundutako jarduerak eta helburuak bete direla egiaztatuz
- justifikazioak osatzeko errekerimendu edo eskaerak egin
- amaierako likidazioa egin
- Zumaia Udalari informazio guztia pasa.
- oinarrietan zehaztutako gainerako eginkizunak, eta berriaz jasota ez baleude, Zumaia eta UKUEren artean adostuko lirateke eginkizunen arduradunak.

#### **Bosgarrena.- Erakunde laguntzailearen betebeharrak:**

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 15. artikulua xedatzen duenez, Urola Kostako Udal Elkarteak honako betebeharrak ditu, erakunde laguntzaile gisa:

a) Zumaia Udalak onartutako oinarrietan ezarritakoaren argitaratzea, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioz kalteak suertatu diren Zumaia autonomiei edo bere kontura lan egiten duten langileei eta mikroenpresei zuzendutako dirulaguntzak ebatzea.

b) Egiaztatzea, batetik, onuradunek dirulaguntza jasotzeko ezarritako derrigorrezko baldintzak bete dituztela eta, bestetik, dirulaguntza bideratu dutela ezarritako xedera eta bete dutela adierazitako helburua.

c) Zumaia Udalari emandako dirulaguntzen berri ematea: Horren haritik, erakunde laguntzaileak Zumaia Udalari bi txosten aurkeztuko dizkio: bata, eskabideen balorazioa eta emandako dirulaguntzak laburbiltzen dituen eta, bestea, amaierako likidazioaren proposamena. Bigarren horrekin batera aurkeztuko ditu onuradunek aurkeztutako zuriketen dokumentuak

d) Zumaia Udalaren esanetara jartzea, fondo horien kudeaketaren gainean egoki irizten dituen egiaztatze lanak egin ditzan.

#### **Seigarrena.- Datuen kudeaketa:**

Zumaia Udalak, Idazkaritza Departamentuaren bidez, erakunde laguntzailearen eskura jarriko ditu, lankidetzaren hitzarmen honen testuinguruan, Urola Kostako Udal Elkarteak Idazkaritzak eskatzen dituen datu eta administrazio dokumentuak, herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena emateko, administrazio lanak sinplifikatzeko eta hainbat izapide bideratzeko. Horretarako, administrazio erakunde bakoitzak horretarako





**Zumaia Udala**

2020IAKU0007-A20/4304

eskumena duten teknikariak izendatuko ditu, datuak egiaztatzeko eskaerak egin eta egiaztapenak egiteko.

Oinarrietan ezarritakoaren arabera, datu hauek egiaztatuko dira bi erakundeen arteko datu lagapenaren bidez (eskabideak egiteko eredu normalizatuan eskatzaileari hori egiteko baimena eskatu zaio):

- Errolda-datuak
- Udal zergen ordainketa-betebeharren egoera

Zumaia Udalarari datuak egiaztatzeko eskaerak egingo zaizkio beharrezko den izapideetan.

#### **Zazpigarrena.- Iraupena eta indarraldia:**

Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean eta indarrean egongo da dirulaguntzen oinarriak indarrean egongo diren epealdian.

**Zortzigarrena.-** Dirulaguntzen Lege Orokorren (38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren) 16.3. artikulua ezartzen dituen gainerako eskakizunei dagokionez, bi aldeak COVID-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioz kaltetuak suertatu diren Zumaia autonomoei edo bere kontura lan egiten duten langileei eta mikroenpresei zuzendutako dirulaguntzen oinarrietan ezarritakora lotuko dira.

Horrenbestez, hitzarmen honetan zehaztutako baldintza guztiak onartzen dituztela adierazi eta jasota uzteko, bildu diren ordezkariak hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, hasieran adierazitako data eta lekuan.

Proposamena eztabaidatzeko, gai zerrendan ez delako sartu, bozka egiten da

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** Proposamena bozkatzea onartzen da,

Hitzarmen horren aldeko bozkek?

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** UKUE eta Zumaia udalaren arteko diru laguntza zuzenen oinarriak Mankomunitatetik kudeatzeko hitzarmena onartzen eta berretsita geratzen da



Ez,

Eskerrik asko, San Pedroak dauzkagu aurretik, ez dakit, diferenteak izango dira eta ea zentzuz jokatzen dugun denok, guk eta herritarrak, eskerrik asko

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak hamar gutxi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria